

a.1 TALDEA SORTZEN

> Gure gauzak



ZENBAIT ESTRATEGIA

Umeek, gela beraiena dela sentitzea oso garrantzitsua da. Erreferente bila dabilta eta gelarekiko "jabetza" sentimendua (hau nire gela da, nire lanak hemen daude, nire mahaia, nire lagunak...) garatzearekin batera talde sentimendua ere lortu dezakete. Espazio kontzeptua oso garrantzitsua da, umeak euren espazio berriak bilatzen dabiltzalako. Espazio horiek eraikitzen laguntzea hezitzaileon lana izango da.

Modu asko egon daitezke lan horretan aurrera egiteko, baina honakoak lagungarriak izan daitezke:

- **Ume bakoitzaren mahaian bakoitzaren izena itsatsi:** Umeak ikusiko du, bere izena bertan dagoela eta bere pertsona aitortua dela leku horretan.
- **Gelako atean talde argazkia itsatsi:** Gelako atean ume guztien argazkia jarri daiteke. Umeek gela euren erreferentzi taldearekin lotuko dute. Taldeari izena jar dakioke eta atean itsatsi. Gela horretan berak ere garrantzia duela sentituko du umeak. (*ikus. Gure ardia)
- **Gela denen artean apaindu:** Gelaren antolaketa denon artean erabaki daiteke, horrela, umeek euren erabakiak kontuan hartzen direla sentituko dute. Baliteke, hezitzaileak gelako paretetan zer jarri nahi duen argi izatea (gai bakoitzarekin lotura dituzten irudi, mural...), baina umeei galde diezaike non jarri, nola, jartzeko eskatu...
- **Talde txikiak:** Ziurrenik, ume taldea, ez da talde homogeneoa izango. Horregatik, behin umeak apur bat ezagutzen ditugunean, talde txikiak egitea komeni da. Taldeak eratzeko modua hezitzailearen esku egongo da, baina kontuan hartzekoak dira:
 - Maila, batak besteari laguntzeko.
 - Adina.
 - Jarrera.
 - Liderrak.Era berean, talde txiki bakoitza kolore, animalia, landare... batekin lotu daiteke. Horrela, taldetxo bakoitzari bere talde-egitura egiten lagunduko diogu: gorriak, berdeak...

Aurrekoak gomendioak jarraitzen baldin baditugu umeak errekonozituta sentituko dira: beraien lekua daukate, beraien izena eta bere gauzak gela horretan ere badaude. Lanean hasteko errazagoa izango da. Zeretik hasiko gara hizkuntzaren alorrean, baina umeak gureganatzen baditugu eta gure artean gustura sentitzen badira lehiaren zati bat irabazita edukiko dugu.